



Arartekoaren ebazpena, 2010eko azaroaren 4koa. Horren bidez, amaitutzat jotzen da hezkuntza-premia bereziak dituen adingabe bat eskolatzeko prozesuaren jarraipenari buruzko jarduera.

Aurrekariak

1. Arreta galtzea eta hiperaktibitate asaldura (AGHA) pairatzen zuen adingabearen gurasoek erakunde honetara jo zuten euren alabaren eskolatzeko baldintzen inguruan hezkuntza administrazioa egiten ari zen jarraipenagatik kezkatuta. Kexa aurkeztu zuten unean, adingabea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko zentro publiko batean eskolatuta zegoen, haur-hezkuntza mailan.
2. Kexa izapidetuko zela onartu ondoren, lehenengo kudeaketak burutu ziren, eta horiei esker, adingabe horren egoeraren alderdi eztabaidagarrienak zehaztu ahal izan genituen. Hauexek izan ziren alderdi horiek:

2.1. *Taldea bitan banatzea*

Neskatxaren gurasoek hezkuntza administrazioarekin zuten desadostasuna hezkuntza zentroak 2008-2009. ikasturtean bost urteko haur taldea bitan banatzeko hartu zuen erabakia zela-eta sortu zen.

Erabaki horren inguruan, gure lehen kudeaketak egin genituen bitartean Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuak bideratu zuen txostenaren arabera, taldea bitan banatu behar izan zen, bost urteko ikasle kopurua handitu zen-eta, eta banaketa hori gauzatzekoan, zentroaren antolakuntza- eta jarduera-araudian (AJA) xedatutako ohiko irizpideak erabili ziren.

Aurrerago jakin ahal izan genuenaren arabera, familiak berak eskaintako informazioari esker, Hezkuntza Ikuskapenak aipatzen zuen ikasle kopuruaren hazkundea, hasiera batean, hezkuntza-premia bereziak (aurrerantzean, hpb) zituzten bi ahizpa biki ez igarotzeko hartu zuten neurria zela-eta gertatu zen; erabaki hori benetan bikaina izan zen, haur-hezkuntzako ebaluazioaren inguruan eta hpb dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunaren inguruan dagoen araudia kontuan hartuta. Eskola horretan gainera, ulerkorra eta integratzailea izanik, berriaz jasotzen da, ezohiko jokabide gisa, hasierako garai horretan beste urtebete igarotzea, betiere, aldeztu aurretiko talde multiprofesionalaren txostena





bideratuta, legezko ordezkarien adostasuna bermatuta eta Hezkuntza Ikuskapenak ontzat emana.

Bestalde, eta banaketa gauzatzeko erabili ziren irizpideei dagokienez, kexagileek aurkeztu zituzten agirien bidez egiaztatu ahal izan genuen moduan, alfabetoaren arabera ordenatzeko logika apurtu zen, guztira lau ikasleren plazak elkartrukatu baitziren. Adingabearen gurasoen ustez, bitan banatzeko beharraren eragina jaso zuten haurrak alfabetoaren arabera ez ordenatzea erabaki zutenean, ikasleen talde *eroso* bat eta *ez hain eroso* bat eratu ziren. Horrek guztiak euren alaba kaltetu zuen, azken taldean sartu baitzuten, eskola aurrerapena egiteko horrek zekartzan zailtasun guztiekin.

Ikuskapen Zerbitzuak burututako txostenean, aurretik ere aipatu dugun horretan, zera baieztatzen zen horren inguruan:

“A juicio de esta Inspectora los criterios con los que se ha hecho el desdoble no han supuesto clasificación por capacidades de los alumnos, máxime cuando el único procedimiento establecido para determinar posibles discapacidades en el alumnado es el que establecen los y las especialistas de los Equipos Multiprofesionales de los Berritzegunes al elaborar los diagnósticos de alumnado con nee. La actitud del buen profesional que atiende al alumnado en la etapa de educación infantil (en este caso el nivel es de 5 años) es precisamente tener altas expectativas respecto a las capacidades de todos los niños y las niñas. Por lo anterior quiere dejar constancia del rechazo que le produce la afirmación que hacen estos padres de “alumnos incómodos, con menos capacidades” por lo que tiene de injusta y de excluyente con respecto al grupo de compañeros y compañeras de su hija”.

Erakunde garen heinean, informazioa eskaini zuen ikuskatzailearen erreakzio hori ulertuko izan genuke, hori izan balitz adingabearen gurasoen benetako iritzia. Ordea, gurasoekin izan genuen bileran beren erabaki zehatza eta irmoa berretsi ziguten, hau da, eskola publiko ulerkor eta integratzailearen alde zeudela (gurasook gainera, alderdi aktiboa dira, irakasle baitira) eta praktika onak egitea baino ez dutela eskatzen.

Hori dela-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei adierazi genien, erakunde garen heinean, ulergarria zitzaigula guraso horiek hezkuntza arduradunei banaketa hori bideratu zen moduari buruzko balorazio argudiatua eta arrazoitua behin eta berriz eskatzea. Zehazki, hainbat haurrengan (horien artean euren alaba) eragina izan zuten talde-aldaketen inguruko informazioa eskatzen zuten eta, gure ustez, horren ondorioetarako ordura arte egin ziren ohar orokorrak ez ziren nahikoak izan.





2.2. **Hezkuntza-premia bereziekiko erantzuna**

2007-2008. ikasturtean, kexagileen alaba Berritzeguneko Talde Multiprofesionalak baloratu zuen, eta hpb dituzten ikasle-zerrendan gaineratzeko erabakia hartu zuten.

Ondoren, 2008-2009 ikasturtea hasi zenean, haren kasuan jarraitu behar zen esku-hartzearen inguruko lehenengo ekimenak jorratu ziren eta, aldi berean, esku-hartze horren inguruko lehen desadostasunak sortu ziren. Gurasoen hitzetan: *"laguntzeko eskaera aurkezten den unean ez da planik, familiarekin jarduteko baterako estrategiarik planteatzen..."*. Desadostasun horien ondotik, zalantzarik gabe ondorioak izan zituen erabaki zorrotza hartu zen, hau da, lanbide anitzeko taldearen teknikariek zehaztutako laguntza ukatu zen, eta halaxe izan zen, kendu egin zen. Ondoren, 2008ko azaroan, neskatxa hpb dituzten ikasleen zerrendetatik baztertzeko eskaera formala bideratu zen.

Bigarren alderdi horri dagokionez, erakunde honek hezkuntza administrazioaren balorazioa ezagutu nahi izan zuen; izan ere, hpb zituen ikasle batek -bertako talde teknikoek hala aitortu zuten- zentroan eskainitako laguntzak jasotzeari utzi zion, gurasoek adierazitako ukatzea zela-eta. Hala ere, hezkuntza arduradunek ez zuten inolako beste ekimenik bideratu ukatze horren arrazoiak zehazteko eta, posible balitz, gainditzeko, laguntzarik ez egotearen ondorioak neurtzeko, etab.

2.3. **Bertaratze kontrola**

Beste alderdi eztabaidagarri bat ere aipatzen zuten, aurrekoarekin nolabaiteko paralelotasuna mantentzen zuena. Izan ere, hezkuntza administrazioak ez zuen inolako neurririk hartu kexagileek erabaki zutenean arratsaldetan ez zutela alaba ikastetxera eramango.

Hezkuntza Ikuskapenak egindako txostenak zera zioen horren inguruan:

"Dado que esta alumna se encuentra escolarizada en educación infantil y esta etapa no es obligatoria, el centro entendió que la no asistencia en las sesiones de las tardes, quedaba justificada bajo la responsabilidad de la familia.

La no comunicación de las ausencias a la Inspección siguiendo el protocolo establecido en el "Programa para garantizar el derecho a la educación: erradicación de la desescolarización y el absentismo escolar en el territorio de Bizkaia "obedeció a las razones aportadas en el apartado anterior por no considerarlo conducta absentista."



Erakunde garen heinean jakin badakigu nahitaezkoa ez den hezkuntza aldi bati buruz ari garela. Hala eta guztiz ere, bagenekien programa mota horietan – adibidez, txostenak jorratzen zuen kasua- haur hezkuntzako 2. zikloko datuak txertatzeko erabakia hartu zela, nahitaezko maila ez den arren; hori guztia txiki-txikitatik eskolatzea sustatze aldera.

Horrez gain, jakin bagenekien administrazio horrek zentroei bertaratze kontrol zehatza burutzeko ahalegina egin zezaten eskatu ziela. Kontrol hori ez zen jarduera estigmatizatzailetzat hartu behar; bai, ordea, eragindako ikaslearentzat arrisku akademikoa, pertsonala edo soziala egon daitekeenean jarduteko lehenengo urrats gisa.

Halaber, bagenekien, kasua antzeman edota bideratu ondoren, tartean zeuden guztiek (irakasleak, gizarte taldeak eta zerbitzu espezializatuak) modu koordinatuan berehala esku har zezaten jokatu zenuela. Hori horrela, guraso kexagileen ustez, Hezkuntza Ikuskapenari eurek hartu duten erabakia -alegia, alaba arratsaldetan ikastetxera joan ez dadila- jakinarazi izan balitzaio, ikuskapen horrek al bait lasterren esku hartuko zukeen, eskolatzeko prozesuan edozein arazo edo eragozpen konpontze aldera.

2.4. Hezkuntza jarraipena

Behin eta berriz aipatu dugun Hezkuntza Ikuskapenaren txostenean ondorioetarako azken atala zegoen, eta zera azpimarratzen zuen:

“...causa preocupación el malestar y la crítica que esta familia expresa en el escrito, que en ninguna ocasión fue puesto de manifiesto en el centro, tal como lo comunica la directora del mismo. Esto último haría pensar en un problema de comunicación, entre la madre y el centro en lo que respecta al proceso educativo de su hija, ya que el seguimiento de su otro hijo, escolarizado el presente curso en 5º de Educación Primaria en este mismo centro, se realiza con total normalidad.

Al no ser comunicada la queja tampoco a otras instancias del Departamento de Educación no cupo una intervención que pudiese aclarar lo contenido en el escrito. Todo lo anterior, a juicio de esta inspectora, nos lleva a la necesidad de seguir reforzando por parte de todas las instituciones el que se acuda inicialmente a todas las instancias de los centros (tutoría, dirección, consejo escolar...) desde el primer momento en que se detecte un problema, así como a las que corresponda del Departamento de Educación si aquel no fuera respondido en el centro, para proseguir donde se considere necesario en la defensa de los derechos de sus hijos e hijas...”





Argi dago, kexa hau izapidetu zen unerako denbora luze igaro zela eta, beraz, zaila da baloratzea ikastetxearen jarduerari buruzko lehenengo desadostasunak jazo zirenean, protesta eraginkorragoak egin izanak hauraren kasua bideratzeko aukera emango ote zukeen.

Hala ere, kexa izapidetzerakoan, ikuskatzaileak adierazi zuen kezka berbera sortu zitzaigun guri ere; hain zuzen, zentrokoak ez ziren beste hezkuntza instantzia batzuek adingabearen kasuan gertatzen ari zenaren berri izan zutenean (Berritzegune, Hezkuntza Ikuskapena) ez zuten salatutako egoera horiekiko jarrera kritikorik agertu (kexagileekin bat gatoz azken alderdi horri dagokionez): taldea bitan banatzea, hpb dituzten ikasleak zerrendetatik baztertzea, jarrera absentista, etab; azken bi egoeretan, behintzat, eskolatzeko normalizatua izan behar denarekin bat ez zetozen egoerak zirenean.

* * *

Horren bidez, adingabe horren hezkuntza jarraipenaren alderdi eztabaidagarrienak zehaztu ondoren, erakunde honek hezkuntza arduradunen jokabide arrazoitua eman nahi izan du alderdi horietako bakoitzaren inguruan. Ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hezkuntza Ikuskapenaren bidez eskaini digun erantzunaren azterketak merezi dituen gogoetak azalduko ditugu. Horretarako, aurreko atalean erabili dugun eskema bera jarraituko dugu gure adierazpena antolatzeko.

Gogoetak

1. **Taldea bitan banatzea**

Hezkuntza Ikuskapenak errepikatu duenaren arabera, zentroak banaketa egiteko erabili zituen irizpideek ez zuten ikasleen ahalmenen araberako sailkapena proposatzen, izan ere, irizpide profesionalen araberakoak ziren. Hori frogatzeko, honako datu objektibo hauek eskaini ditu: alde batetik, sartu berriak diren ikasleen banaketa orekatua eta bestetik, ebaluazioaren emaitzen bilakaera, lehen hezkuntzako lehen mailako 2. hiruhilabeteko ebaluazio jarraitua kontuan hartuta.

Gainera, zentroko zuzendaritzaren azalpenetan oinarrituta, zera zehaztu du:

“...Haur Hezkuntzako etapako bost profesionalek (bi tutore, musikako irakaslea, psikomotrizitateko irakaslea eta ingeleseko irakaslea) parte hartu zutela haur bakoitza dagokion taldera esleitzeko unean. Datu horrek behintzat bermatzen du hainbat ikuspuntu profesional egotea talde batean edo bestean egotearen egokitasuna balioeste aldera. (...) D2 taldean



egoteko erabakiaren zioa izan zen, ikastetxeko zuzendariak helarazten duen eta ikuskaritzak aztertutako ikastetxearen txostenetan islatzen den bezalaxe, kontuan eduki zirela lokarri afektiboak berdinekin batera.”

Arestian aipatu dugun moduan, une honetan zaila da, hainbat eskolatze hilabete igaro ondoren, dagoeneko gaindituta dagoen errealitatera itzultzea. Hori bai, nolana ere, adierazi beharke gure, erabaki egokia eta zuzena zehazten duten irizpide profesional ugari kontuan hartzen diren arren, profesional horiek irizpide baten alde agertu direla, berdinkideekiko lotura afektiboak kontuan hartzen dituenaren alde, hain zuzen. Irizpide hori ez dugu orain arte nabarmendu AJAn xedatutako ordena objektiboa bideratzeko irizpideak aipatu direnean, hasiera bateko alfabetoaren arabeko ordenaz gaindiko aukera gisa.

2. Hezkuntza-premia bereziekiko erantzuna

Ikuskapen Zerbitzuak, adingabearen hpb-en inguruan egindako jarraipena azaltzen saiatzeko, mugako adibide batera jo du. Gure ustez ez du inondik inora familia honen errealitatearekin bat egiten kontuan hartuta, bestalde, bi gurasoak irakasleak direla.

Horrela, honako hau adierazten da erakunde honetara bidalitako txostenean:

“HPBko zerrendetan sartzea, Berritzeguneetako Talde Multiprofesionala lagun teknikoen balioespen profesionalaren ondoren, egin daitekeela soilik familien baimenaren ostean. Familia horrek eskatu zuen kanpoan uztea, eta horren aurrean hezkuntza aginteak soilik dauka bide ezagun bat jokatzeko gurasoen erabakia argi ez arrazoizkotzat joz gero: babesik gabeko egoera dela iriztea, otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25.2 artikulua seinalatzen duen bezalaxe, Haur eta Nerabeak Lagundu eta Babestekoa, eta hori izanez gero Ministerio Fiskalari adierazi egingo litzaioke. Ohiko egoeretan Hezkuntza Ikuskaritzak bermatzen du lehenbizian familiek izatea ahalik eta informazio profesionalik zehatzena erabakitik sortu daitezkeen ondorioei buruz. Kasuon azpimarratu nahi da neska horren gurasoek -biak dira irakasle eta ama alaba eskolatua zegoen ikastetxean- gaitasun nabari handiagoa daukate ohiko familiek baino hartzeko eskatu zituzten neurrien hezkuntza eraginak balioeste aldera: zerrendak baztertzea eta ez edukitzea esleitutako baliabideak. Horren harira, ez zuen nabaritu babesik gabeko egoera egotea, Fiskaltzak jokatzeko eskatzen duena. Bestalde, urriaren 16ko txostenean azaldua zen bezalaxe, ikuskaritza horrek ez zuen jaso familia horren erabakiaren berri, eta senideek ez zuten jo zerbitzu horretara erabakia hartzerantz bultzatu zituzten zioak aztertu ahal izateko





Hezkuntza administrazioak bidalitako erantzun horren bidez, berriz, 2001eko ekainean aurkeztu genuen *EAEko hezkuntza-premia bereziekiko erantzuna* izeneko txosten berezian gaineratu genituen hobekuntza-proposamenen eta gomendioen jadanekotasuna aztertu dugu; zehazki, honako gaien inguruan: (1) Ikuskapenak hpb-en alorreko emaitzen ebaluazio iraunkor eta jarraituan ahalik eta esku-hartze gehien izan dezan saiatzea, (2) hezkuntza zerbitzuen artean koordinazio gehiago egon dadin ere saiatzea eta (3), azkenik, familiekin laguntza gehiago egon dadin laguntzea.

3. **Bertaratze kontrola**

Alderdi honi dagokionez, Ikuskapen Zerbitzua errepikakorra ez izaten saiatu da eta alde zuzenetik adierazitakoari lotu zaio. Horren ildotik, honakoa adierazi du:

"Delako "la conducta absentista"ri buruzko hirugarren egoerari dagokionez, ikuskariok urriaren 16ko txostenean azaltzen den guztia dute oinarri. Eta, zerrendetatik baztertu izanaren kasuan jaso denez, berriro ere adierazten dute ezen babesik ez bat balioesten denean matrikulatua dagoen ikastetxera Haur Hezkuntza etapan ez doan haur baten baitan, beti "interés superior del niño, de la niña y del adolescente" printzipio nagusiak gidaturik, 3/2005 Legean jasota, Ministerio Fiskalera bideratzen da."

Egiazta dezakegun moduan, babesgabetasuneko mugako egoera deskribatu da berriro ere, baina egoera hori ez dator bat adingabe horren familiaren errealitatearekin. Hori dela eta, gure ustez, guraso kexagileek defendatutako planteamenduak, bai eta horren antzeko eskaerak ere, zentzuzko oinarria dute, izan ere, hpb dituzten adingabe horiek etengabe jarraitzea eta ebaluatzea eta familiak gehiago laguntzea eskatzen dute.

* * *

Kexaren izapidean une honetara helduta, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean egindako jarduera multzoa kontuan hartu ondoren, gure esku-hartzeari amaiera emateko unea heldu dela uste dugu eta, beraz, hona hemen gure



Ondorioak

Erakunde honen ustez, hezkuntza arduradunek ez dute behar bezalako jarraipena egin hezkuntza-premia bereziak dituen adingabe horren eskolatze prozesuan. Zentzu horretan, eta tartean fiskaltzaren esku-hartzea justifika zezakeen babesgabetasun egoerarik ez zegoenez, familiarekin sortu diren ezberdintasunak birbideratzeko neurriak hartzea ekidin dute baina, hala ere, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle gisako izaera ukatzea eta eskola-aldiaren zati bat ez betetzea onartu dute.

Hori dela eta, gure ustez, izapidetu berri dugun moduko kexak ikusita, hezkuntza arduradunek hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazio gehiago eskaintzera bideratutako praktika onak ezartzeko ahaleginak indartu beharko lituzkete, behar berezi mota hori pairatzen duten adingabeen hezkuntza erantzunaren ebaluazio egokia eta jarraipen zuzena bai eta euren familiekiko laguntza handiagoa ere bermatze aldera.

